




1- IKUSI AURRETIK

1.1 Badakizu sushia prestatzen?

✂ Irudietan dauzkazu hiru plater eta hiru elkarrizketa. Lotuko al dituzu?

Egoerak	Elkarrizketak
<p>a</p> 	<p>1.</p> <p><input type="radio"/> Eta zuk zer prestatuko duzu, Ines?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbait begetarianoa: arroz integrala algekin. <p><input type="radio"/> Eta badakizu prestatzen?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bai, oso goxoa ateratzen zait.
 <p>b</p>	<p>2.</p> <p><input type="radio"/> Ui, oso goxoak daude babarrun hauek. Zuk prestatu al dituzu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez, gure amak prestatu ditu. • Zuk ez dakizu prestatzen? • Bai, baina....
 <p>c</p>	<p>3.</p> <p><input type="radio"/> Niri Japoniako janaria gustatzen zait.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Niri ere bai. Badakizu sushia prestatzen? • Ez. • Nik ere ez, baina ikasi nahi dut.

1.2 Eta zuk zer dakizu prestatzen?

✎ Idatzi hemen prestatzen dakizun plater bat eta komentatu lagunekin:

1.

- *Zuk zer dakizu prestatzen?*
- *Nik gazta-tarta. Eta zuk?*
- *Ba nik arrain-pastela. Oso goxoa egiten dut.*



Komentatu denon artean zer plater dakizuen prestatzen.

2- IKUSI BITARTEAN

2.1 Audioa ulertzen



Ikusi bideoa eta erantzun galderari. Adostu erantzunak.

- Nork prestatu du janaria?

- Josuk.
- Josuren amak.
- Josuren amonak.

- Amaia haserretu egin da Josurekin. Zein da arrazoia?

- Sukaldea zikin-zikina dago.
- Josuk gezurra esan dio.
- Ez du afaria prestatu.

- Zer daukate kroketek?

- Bakailaoa.
- Haragia.
- Urdaiazpikoa.

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Zer prestatuko dugu?

Amaiak jakin nahi du nola egin dituen Josuk kroketak eta arrain-zopa. Nola galdetzen dio? Osatu elkarrizketa.

Zer dauka? / Zer daukate?


JOSU.— Ikusiko duzu, amak kroketak mundialak prestatzen ditu; bexamel zoragarria egiten du. Asko gustatuko zaizkizu.

AMAIA.— ?: urdaiazpikoa ala bakailaoa?

JOSU.— Urdaiazpikoa. Eta arrain-zopa! Gehiago eskatuko didazu.

AMAIA.— ?

JOSU.— Ba ez dakit.

 Amaiak eta Josuk janariari buruzko balorazioak egiten dituzte. Azpimarratu elkarrizketan balorazio horiek.



JOSU.— Eta zuei afaria jarri. Ideia bikaina, e?

AMAIA.— Eskerrak! Hauek onak egongo dira, seguru. Zureak, berriz, auskaloi!

JOSU.— Ikusiko duzu, amak kroketak mundialak prestatzen ditu; bexamel zoragarria egiten du. Asko gustatuko zaizkizu.

AMAIA.— Eta zer daukate: urdaiazpikoa ala bakailaoa?

JOSU.— Urdaiazpikoa.

AMAIA.— Niretzat onenak dira.

JOSU.— Eta arrain-zopa! Gehiago eskatuko didazu.

AMAIA.— Zer dauka?

JOSU.— Ba ez dakit.

AMAIA.— Ea... Um, usain ederra dauka.

3.2 Gelako merienda

Merienda edo hamaiketako bat egin behar duzue gelan. Jarri talde txikitan eta adostu zer plater prestatu. Hitz egiteko, jarraitu eskema honi:

1. Adostu zer prestatu
2. Esan zer daukan platerak
3. Egin balorazioak platerari buruz

1

- Ekarriko dugu urdaiazpikoa eta txorizoa?
- Eta zergatik ez tortilla bat?

2

- Eta zer dauka zure tortilla horrek?
- Patata eta tipula

- Eta nolako tarta egingo dugu?
- Gaztarekin.

3

- Nire pintxoak asko gustatuko zaizkizue.
- Nik oso tarta goxoak egiten ditut.

✖ Azaldu gelan zuen platera, eta adostu denon artean meriendarako platerak.

- *Guk budina prestatuko dugu. Kokoa dauka. Oso goxoa, asko gustatuko zaizue.*
- *Ba guk urdaiazpikoa ekarriko dugu, Salamancakoa. Mundiala!*